

HAURREN ASALDURA

Jendarte hiperaktiboaren seme-alabak

Zer ari da gertatzen arreta gaitasunarekin egungo gizartean? Zer da arreta eta zeri jarri behar zaio? Nork dauka gaitasun hori? Gaixotasuna al da?

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

IZARO MARIEZKURRENA ETXABE

Gero eta gehiago dira Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura (AGHA) diagnostikatuta duten haurrak. Diagnosi horrek haurra asaldura edo gaixotasun neurologiko batera kondentzen du betirako, zeinaren irtenbidea beti eta soilik den farmazeutikoa. Jose Ramon Ubieta eta Marino Perez psikologoek, ordea, hau guztia zalan-tzan jartzen dute eta gizarte neoliberalaren baitan kokatzen dute arazoa: “Guretzat AGHA ez da gaixotasun bat, ez da asaldura mentala. Beti ezin ditugu ebidentziak onartu”.

Ez dute ukatzen haurrak arreta gaitasun eskasa izan dezakeenik, baina hamaika faktoreren ondorio izan dai-

tekeela argudiatzen dute eta horiek direla landu beharrekoak: “Diagnostikoa jasotzen duten haurrek ziurrenik jarrerarekin izango dute arazorik edo bizitza familiarrekin edo eskolako errendimenduarekin. Baina arazo bat ez da gaixotasun bat”,

dio Perezek. “Diagnostikoak egiten duena da gaixotasun bihurtu berez arazo bat baino ez dena”.

Idea honen aurrean haurren egoera ulertzeko ahalegina azpimarratu dute, egon daitezkeen hamaika faktore horiek gizarteak berak erreproduzitzen dituela sinetsita. “Haur horiek gizartearen ezaugarriak birproduzitzen dituzte. Gizarte bera da hiperaktiboa. Neoliberalismoaren ezaugarri bat da. Berak sortzen dituen

Gizarte bera da hiperaktiboa. Neoliberalismoaren ezaugarri bat da. Berak sortzen dituen arazoak arazo indibidual bihurtu nahi ditu garuna hondatuta dugula esanez”

Marino Perez

tekeela argudiatzen dute eta horiek direla landu beharrekoak: “Diagnostikoa jasotzen duten haurrek ziurrenik jarrerarekin izango dute arazorik edo bizitza familiarrekin edo eskolako errendimenduarekin. Baina arazo bat ez da gaixotasun bat”,



arazoak arazo indibidual bihurtu nahi ditu garuna hondatuta dugula esanez. Propio sortu dituen arazoak naturalizatu nahi ditu, eta berezkoak diren hamaika baldintzak alderatu egiten ditu, ezkutatu eta dena homogeneizatu”, dio Perezek. Medikamentura bideratuta dagoen konponbidea ematen dute sarritan honen aurrean, eta horrekiko ere desadostasuna azaldu du.

Jendarte da, beraz, asaldatuta da-



goena aditu hauen ustez, eta haurrak horren isla dira. “Bob Esponja marrazki bizidunetako kapitulu batek Heidik bost denboraldi baino estimulu gehiago ditu: soinua, koloreak, mugimendua... Gaurko haur bati Heidi telesaileko kapitulu bat jarri eta aspertu egingo litzateke, zentzumenak estimulatuegiak dituelako”, kontatu du Ubietok. “Ondoren eskolan 50 minutu geldirik eta isilik egoteko eskatzen

diegu, ikasgelak XIX. mendetik aldatu ez direnean. Gu ere ez gara gai telebista aurrean *zapping* egin gabe egoteko”. Bere argudioak indartzeko beste egoera bat ere aipatu du: haur bat gurasoen parean zain, interesatzen ez zaion elkarrizketa batean arreta jarrita. “Gaur mugikorra ematen zaie egoera hori gainditzeko. Bateriarik gabe gelditzea da gehien kezkatzen gaituena”, gehitu du.

Aldiz, aldaketak eman diren eskoletan AGHA diagnostikatu zaien haurren tasa asko jaitsi da, Bartzelonako eskola batean kasu: lehen orduan baratze-
ra joaten dira, ikastaroak egiten dituzte eskola guztian, ikasgelaz aldatzen dira, eskola orduetan mugimendua sartzen dute zerbait natural bezala... Aldaketa horiek haurraren mugimendua hartzen dute kontuan, eta hori kudeatzen lagundu.

GEHIEGKERIAN HEZIAK

Jendartea hiperaktiboa izateaz gain, hiperkonektatuta eta hipersexualizatuta dagoela gaineratu dute. Hiru kontzeptu horien bueltan definitzen dute gaurko bizidunen izaera, batez ere 2.000. urtetik aurrera jaio direnena. “Ez da soilik gehiegikeria, horrek dakarren gauza garrantzitsuen dekadentzia baizik”, esan du Perezek.

Gaurko haurrek bost urtetatik dituzte sexu-harremanak buruan, eta horrek harremanak garatzeko orduan negatiboki eragiten diela azpimarratu dute. Imitatu egiten dute ikusten dutena naturalak diren pausuak atzean utziaz: bilatzea, aurkitzea, hausnaritzea... Gaur egun, mundu osoan, sexualitatearen abiapuntua pornoa da, gainera. Mundu mailan pornoa *online* kontsumitzen duen kolektibo handiena 12-17 urte bitarteko gazteak dira NBERen datuen arabera, eta handitzen doa. Eredu horiek imitatzeak hainbat ondorio ekarri ditu, inpotentzia kasu asko mutilengan eta urratutako uzkiak, esaterako.

Eta guzti hori *online*. Etengabe konektatuta egoteak ere elkarrizketa errealak ezabatzen dituela gaineratu dute, ez dagoela denbora errealean eta pertsona errealekin ematen den harremanik, ez direla naturalak.

Hiper delako erregimenaren barnean bizi dira, beraz, gaurko haurrak, guztiak gizartearen menpeko, baina batzuek soilik jasotzen dute diagnostikoa. Arrazoietakoa bat mugimenduarekin lotzen du Perezek.

Mugimendua da munduarekiko dugun lehen kontaktua. Batzuek gehiago daukate besteekin baino. Gizartearen erritmoa bizi-biziaz denez, errazago sartuko da gurpil horretan mugimendua azkarragoak dituenak. “Haur hori espero duguna baino gehiago mugituko da arreta jarri behar duenean ere. Helduei ere interesatzen ez zaien gauzei arreta jarritzea kostatzen zaie, baina ez dute berez arazorik”, dio Ubietok.

Zer egin horren aurrean? Molestatzen duten haurrei diagnostikoa jarri

edo sisteman zerbait aldatu mugimendua bera aukera bat izan dadin? Galdera horiek berak planteatzen dituzte: “Oker dagoena hezkuntza sistema dela uste beharrean haurra dela sinesten badugu, AGHA duten hainbat eta hainbatekin aurkituko gara. Noski badaudela desoreka duten haurrak. AGHA existitzen da, noski. Baina galdera da ea zeintzuk diren haur hori asaldatzeko arazoak. Zer gertatzen zaion adi ez egoteko eta nola lagun diezaiokegun”.

Hiperaktiboa, berez, gehiegizko aktibitatea duen eta hura kudeatzen ez dakien gorputz bat da. Kaltetua laguntzeko harekin aliatzea gomendatzen du Perez psikologo kliniko eta psikoanalista. Irakasleak gaizki portatzen denean soilik jartzen dio arreta hainbat haurrei, baina nola aurki dezake haurrak irakaslea jarrera positibo batekin? “Kasu batean irakasleari haurra ikuspegi positibo batetik begira zezan gomendatu nion, ea gauza onak ikus zitzakeen. Bion arteko harremana aldatuz joan zen. Gurpil horrek norabidez alda dezake”.

ASPERTZEAREN GARRANTZIA

“Ez gara gu, ez dugu gurea propioa egiten, merkatuak eskaintzen duenaren erreplika baizik”, adierazi du Ubietok. Asebetetze maximoa objektuen bitartez jasotzen duen gizartea aipatu dute, gabonetan bertan jasotzen ditugun gehiegizko opari eta janariak adibide hartuta. Modan dauden mugikorrek,

kotxe berriak eta estreinatutako arropa. “Haurren bizitzak

beteegiak daude eta pentsamendua eta sormena erabat mugatuak.

Desira apaltzen diegu; makina bati konektatuta igaro baduzu eguna ez duzu ezeren beharrik, konektatuta zaude eta kito. Zerbait asmatzeko, ordea, hutsa sentitu behar da lehenik, zerbaiten falta sumatu; adibidez, aspertuta egotea”.

Egun, gurasoek seme-alabekiko gehiegizko ardura dutela ere esan dute, markatuta dauden etapak jarraitzen ez baditu arazoak dituela sinesten dutelako: “Helduen idealen arabera ari

gara haurtzaroa kolonizatzen. Gu bezalakoak izatea nahi dugu eta hiper-araututa egote horrek zorientasuna ukatzen die. Produktore gisa erabiltzen ditugu eta zorientasunaren aurkakoa da hori. Haurtzaroa aspertzeko da, jolasteko, kuxkuxeatzeko, ikertzeko, deskubritzeko. Heldua izateko denbora nahikoa duenak izango du haurtzaro zorientatu bat”.

Perezek zorientasunaren erabilpen okerra egiten dugula gehitu du, dena dibertigarria adjektiboz neurtzen baita, eskola barne: “Unean unekoaz kezkatu beharko ginatke, ez hori egiten zenbaterainoko zorientasua naizen neurtuz. Irizpide horrek ez du balio bizitzako zantzu guztietarako”.

Aldaketak eman diren eskoletan AGHA diagnostikatu zaien haurren tasa asko jaitsi da

NORTASUN HAUEKIN ZER?

Esan bezala, hamaika izan daitezke baldintzak: biografikoak, sozialak, zehatzak, egoera traumatikoak bizi izana, doluak, abusu sexualak jasan izana, ama jotzen ikustea, hiper-arauaren araberrako ondorioak... Honen aurrean diagnostiko batean soilik ez geratzea da bi adituen filosofia eta borroka. “Arazoaren oinarria garuneko desgaitasun bat dela sinesten dugunean pentsatzeari utziko diogu”, adierazi du Ubietok.

Finean, haurra osotasunean aztertzea defendatzen dute, testuingurua eta emozioak landu eta oinarria iris-tea. Beti haurra maitatuz: “Gizarteak ez ditu haur hauek toleratzen eta gaixotasunen zerrendan sartu nahi ditu. Nik nortasun mota bat bezala ikusten dut, izateko modu bat bezala. Haur hauek ikusmira handikoak dira, sormen handikoak, irekiagoak esperientzia berrietara, sentsazio berrien sortzaile”. ●

“
Eskolan 50 minutu geldirik eta isilik egoteko eskatzen diegu, ikasgelak XIX. mendetik aldatu ez direnean”

Jose Ramón Ubieto